

KONTROL MOZIOA

GIZARTE EKINTZAKO BALIABIDEENTZAKO INBERTSIOEN EXEKUZIO MAILA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko ekainaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017. urteko likidazioa ikusten badugu, Gizarte-ekintzako baliabide batzuetarako eta jubilatuen egoitzak berritzeko zuzendutako inbertsioetatik, soilik, gutxi batzuk exekutatu dira. Oso adierazgarriak dira honako adibide hauek:

- Lokalak berritzeko 100.000 euro 2017tik 2018ra pasatu dira ukitu ere egin gabe.
- Jubilatuen etxeak berritzeko 1.120.000 euroetatik 1.068.000 euro pasatu dira 2018ra ukitu ere egin gabe.
- Gizarte zerbitzu guneak hobetzeko 371.000 euroetatik 361.000 euro pasatu dira 2018ra.
- Lokalak berritzeko 412.000 euro eta Hestia eguneko zentrorako lokala erosteko 886.000 euroak 2018ra pasatu dira, 2017an ez direlako exekutatu.

Ekaineko batzordeetan delegatuari honen inguruan galdetu diogunean kontratazio legea konplexua dela adierazi digu eta proiektuen ardura Gizarte-ekintzako departamendutik kanpo gestionatzen dela aipatu du. Delegatuaren ustez, azkeneko urteetan hainbat pauso eman ditu Udal Gobernuak: lokala eskuratu dute Leire Plazan bi elkarterentzat, Varonako jubilatuen etxean obrak hasi ziren eta Jatorran aurten esleitzea espero dute, eta Zuhaiztiko gizarte zerbitzuen gunearentzako lokal berria egokitu da.

Gure ustez, 2017tik datozen inbertsioak ikusita, Udal Gobernuak exekutatu duena eta egindako esfortzua ez da nahikoa. Are gehiago, inbertsioetan jasotako proiektuetako batzuk aurreko legegintzaldian hasitako proiektuak direla kontuan hartzen badugu.

Gainera 2017tik jasota dauden inbertsioetako batzuk Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako derrigorrezko zerbitzuak dira; esate baterako, etxerik gabekoentzako eguneko zentroa (Hestia zerbitzua). Proiektu honen kasuan, ezin dugu ulertu 2016tik legez martxan egon behar zen eguneko zentrorako lokalik ez topatu izana hiru urtetan, 800.000 euroko partida izanda.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte-ekintza departamenduko baliabideak osatzeko eta jubilatuen etxeak berritzeko 2017tik aurreikusitako inbertsioak exekutatu ditzala 2018. urtean.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehentasuna eman diezaiola legez derrigorrezkoak diren zerbitzuak hobetzera zuzenduta dauden inbertsioen exekuzioari.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia